




# Impress erabiliz aurkezpen bat sortzeko gida

Gida hau lagungarria izango da aurkezpen bat sortzeko, eta haren bitartez, zure esperientzia azaltzeko informazioa antolatzeko.

**1. urratsa.** Abiarazi Impress eta ireki fitxategi berri huts bat. Gorde fitxategia zuen lantaldea identifikatuko duen izen bat erabilia. Gordetzeko, hautatu **Fitxategia** menua, eta bertan, **Gorde honela** aukera. Bilatu irakasleak adierazitako. Ondoren, idatzi fitxategiaren izena eta sakatu **Gorde**.

Lana egin bitartean, klik egin dezakezue **Gorde** ikonoan.




1. urratsa. Fitxategi bat gordetzea, Impresen





**2. urratsa.** Pentsatu zer izenburu jarri zuen esperimuntuari.

**Diseinuak** panelean, aukeratu txantilo bat izenburu hori idazteko. Egin klik aukeratutako diseinuaren gainean, uneko diapositibak hautatutako egitura har dezan. Testu-prozesadore batean bezala, goiko aldean, barra bat duzue formatua aldatzeko. Zaindu elementuen banaketa, letra-tipoa eta abar, oso garrantzitsua baita diapositiba ondo diseinatuta egotea, hura errazago irakurtzeko eta mezua hobeto ulertzeko.




2. urratsa. Diapositiba baten diseinua aukeratzea, Impresen.





**3. urratsa.** Txertatu beste diapositiba bat. Horretarako, hurrenez hurren, hautatu **Txertatu** menua, eta bertan, **Diapositiba** aukera. Prozesu bera egin beharko duzue diapositiba guztiekin.




Diapositiba bat txertatzea, Impresen





**4. urratsa.** Diapositiba berriak, idatzi esperimenturako erabilitako materialen zerrenda.




Diapositibak sortzea, Impressen





**5. urratsa.** Erabilitako materialen argazki bat txerta dezakezue. Horretarako hautatu **Txertatu** menua, eta bertan, hurrenez hurren, **Irudia** eta **Fitxategitik** aukerak. Bilatu argazki-fitxategia, eta sakatu **Ireki** edo **Txertatu**. Egin gauza bera argazki bat txertatu nahi duzuen bakoitzean.



**6. urratsa.** Txertatu beste diapositiba bat, jarri **Prozedura** izenburua, eta azaldu emandako urratsak (1. taldea: botila izozkailuan jarri. 2. taldea: sagar-zatiak hiru plateretan prestatu).


**7. urratsa.** Txertatu beste diapositiba bat, **hasierako hipotesia** argi azaltzeko. Erabili zuen hasierako oharrak atal hori osatzeko.

**8. urratsa.** Txertatu bi diapositiba **emaitzak** adierazteko, hots, zer gertatu den azaltzeko. Izan ere, gertatutakoa hasieran uste zenutena izan daiteke edo ez. Argazkiak oso baliagarriak dira. Ordenatu kronologikoki, eta azaldu zer ikusten duzuen.





Aholkua: aukeratu irudi bat txertatzeko prestatutako diapositiba-diseinua. Aski izango da bi klik egitea ikonoaren gainean, eta fitxategia argazkiarekin batera aukeratu ahal izango duzue.



*Irudi bat duen diapositiba-diseinua txertatzea, Impresen*

**9. urratsa.** Azken diapositiban, azaldu **ondorioak**. Zuzena zen zuen hipotesia? Espero ez zenuten zerbait gertatu da? Bada kontuan hartu ez duzuen zerbait? Badakizue zergatik gertatu den? Nolako aldaketa da: kimikoa, fisikoa? Zergatik? Nola du izena aldaketa-mota horrek? (Gogoratu hasieran irakurritako testua).

**10. urratsa.** Aztertu berriz aurkezpena eta planifikatu zuen azalpena. Horretarako:

- Ikusi aurkezpena, espero bezalakoa dela egiaztatzeko (berrikusi ortografia).
- Pentsatu zerk harritu zaituzten gehien, zer azpimarratu nahi duzuen.






INGURUNE  
ARLOA

- c. Labur-labur, idatzi nola banatuko duzuen azalpena zuen artean. Argi izan behar duzue zer esan behar duen bakoitzak.
- d. Azalpenak hamar-hamabost minutu iraun behar du. Kontrolatu denbora!

**11. urratsa.** Prest zaudetenean, joan **Ikusi** menura, eta bertan, hautatu **Diapositiba-aurkezpena** aukera; edo sakatu **F5** aurkezpena abiarazteko. Egin proba txiki bat.



Aurkezpen bista aktibatzea, Impresen

